Sin embargo, debe tomarse en cuenta que desde el año 1998 hasta la actualidad la Ikastola Orereta ha ido realizando los arreglos y obras de mantenimiento necesarias para la conservación del edificio, consta en el expediente documento aportado por la Ikastola Orereta, y que las obras ahora propuestas superan el concepto de mantenimiento y conservación; de

izaera dute; izan ere, eraikinaren egiturari dagozkio berez (fatxada), eta segurtasun ikuspuntutik beharrezkoak dira (argindar sistema), eta duten helburua kontuan izanik ere, hau da ikastetxe gisa zerbitzu publikoa ematea, beharrezkoak dira. Gainera, leihoen aldaketarekin energia aurrezkia ere sustatuko da.

forma que tienen naturaleza de inversión, y son propias de la estructura del edificio (fachada), necesarias desde el punto de vista de seguridad (sistema eléctrico) y para el cumplimiento del fin previsto para el edificio, prestación de un servicio público como centro educativo. Además, con la sustitución de ventanas se favorecerá el ahorro energético.

Errenteriako Udala eraikinaren jabea denez eta Orereta Ikastola adjudikazio-hartzailea baino ez, obren tipologia eta aurrekontua kontuan izanik, proposatzen da Errenteriako Udala izatea obrak egin eta finantzatuko dituena.

Siendo el Ayuntamiento de Errenteria el propietario del edificio y la Ikastola Orereta un mero cesionario, a la vista de la tipología de las obras y su presupuesto, se propone que sea el Ayuntamiento de Errenteria quien ejecute y financie dichas obras.

Nabarmendu behar da egun ez dagoela herrian Udal honek eginiko inolako bestelako uzte-kontraturik interes publikoko elkarteekin, kontuan hartzen duena inbertsio obra guztiak lagapen-hartzaileak bere gain hartu behar dituela. Egoera horrek bidegabekeria sortzen du egun lokal horiek erabiltzen dituzten gainerako elkarteen aldean. Hori dela eta, Udalak egokitzat jotzen du azaldu diren obren kostuak bere gain hartzea.

Cabe señalar que actualmente no existe ningún otro contrato de cesión realizado por este Ayuntamiento con asociaciones de interés público de este municipio que contemple que las obras de inversión sean asumidas en su totalidad por el cesionario. Esta situación genera un agravio comparativo respecto al resto de asociaciones que disfrutan actualmente de los citados locales, por lo que se considera oportuno que este Ayuntamiento asuma los costes de las obras que se señalan.

Era berean, komenigarria da gogoaraztea irabazi asmorik gabeko Orereta Ikastola Koop. E. kooperatiba onura publikotzat aitortu zutela, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuak emaniko aginduaren bidez, 2008ko abenduaren 1ekoa. Horrela, bada, bere ondarea, kooperatiba desegingo balitz, Euskal Administrazio Autonomoaren esku geratuko litzateke. Egun elkartearen sarean 1600 pertsona aritzen dira, eta 1500 ikasle eta 140 langile ditu.

Asimismo, conviene recordar que la cooperativa sin ánimo de lucro Orereta Ikastola Koop. E. fue declarada de utilidad pública por Orden de 1 de diciembre de 2008 del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, quedando su patrimonio, en caso de disolución, en manos de la Administación Autónoma Vasca. Actualmente pertenecen a su tejido asociativo cerca de 1600 personas, y cuenta con 1500 alumnos y 140 trabajadores.

Beste alde batetik, proposatzen da uzte-epea 2028ko abuztuaren 30a arte luzatzea, beste 9 urte, Orereta

Por ello, se propone además ampliar el plazo de cesión hasta el día 30 de agosto de 2028, nueve

Ikastolak 2013 ekainaren 12an aurkeztutako eskaeraren arabera, eta ondorengo arrazoiengatik:

- Hainbeste urtetan Orereta Ikastolak herrian garatu duen hezkuntza proiektu horrek, aurrerantzean ere, jarraipena izan dezan bermatzea.

- Proiektu horrek aurrera egin dezan, eraikinari ezinbestekoak diren baldintza guztiak (egitura, segurtasuna...) betetzeko baliabideak eskaintzea.

Proposamen hau egitearen ondorioz Errenteriako Udalaren eta Orereta Ikastolaren arteko kontratua aldatu egin behar da.

Espedienteak jasota dago Kontxi Bello Kontratazio eta Ondarea Departamentuko arduradunak eta Mª Jose Sánchez udal aholkulariak 2013ko ekainaren 14an uzte-kontratuari buruz egindako txosten bateratua.

Espedientean jasota dago Txema Arenzana udal kontu-hartzaileak 2013ko ekainaren 14an egindako txostena.

Era berean, espedientean jasota dago Kontu-hartzaileak, Idazkariak, Ondare eta Kontratazio Saileko arduradunak, Lege-ahokulariak eta Hezkuntzako teknikariak 2013ko uztailaren 3an elkarrekin eginiko txostena.

Kultura eta Hezkuntza Batzordeak aurkako irizpena eman zuen 2013ko uztailaren 11n.

Halaber, Lehendakaritza eta Barne-antolaketako Batzordeak aurkako irizpena eman zuen 2013ko uztailaren 10ean.

años más, en base a la solicitud presentada por Ikastola Orereta en fecha 12 de junio de 2013, y por los siguientes motivos:

- Garantizar que, en el futuro, Ikastola Orereta pueda seguir desarrollando su proyecto educativo del mismo modo que lo ha venido realizando hasta la actualidad.

- Dotar de los recursos necesarios para que dicho proyecto se lleve a cabo en un edificio que cumpla con todas las condiciones (estructura, seguridad...).

La presente propuesta supone tener que modificar el contrato suscrito entre el Ayuntamiento de Errenteria y Orereta Ikastola.

Consta en el expediente informe conjunto de la Responsable de Contratación y Patrimonio Kontxi Bello, y Asesora Juridica Municipal, Mª Jose Sanchez, de fecha 14 de junio de 2013, sobre la modificación del contrato de cesión.

Consta en el expediente informe del Interventor Municipal, Txema Arenzana, de fecha 14 de junio de 2013.

Consta asimismo informe conjunto del Interventor, de la Secretaria, de la Responsable de Patrimonio y Contratación, de la Asesora Jurídica y de la Técnico de Educación, de fecha 3 de julio de 2013.

Visto el dictamen desfavorable de la Comisión de Cultura y Educación de fecha 11 de julio de 2013.

Visto el dictamen desfavorable de la Comisión de Presidencia y Régimen Interior de fecha 10 de julio de 2013.

Lehendakaritza eta Barne-antolaketako batzordeburuaren eta Kultura eta Hezkuntza Batzordearen batzordeburuaren proposamena ikusitakoan.

Vista la propuesta de la Presidenta de la Comisión de Presidencia y Régimen Interior y de la Presidenta de la Comisión de Cultura y Educación.

Jarraian, Talde Sozialistak 2013ko uztailaren 15ean aurkeztu eta uztailaren 17an zuzenduriko Osotasuneko Zuzenketa irakurri du Idazkariak:

Se da lectura a continuación a la Enmienda a la Totalidad presentada por el Grupo Socialista con fecha 15 de julio de 2013 rectificada con fecha 17 de julio:

1. Ezkuntza eta Kulturako zinegotzi-ordezkariak Errenteriako udala eta Orereta ikastolaren artean lehengo “Ainguru Guardako ikastetxea”-ren zati bat erabiltzeko indarrean dagoen hitzarmena aldatzeko aurkezturiko proposamena egin duela ikusita, eta espedientearen inguruan eginiko azken txostenak eta aldaketak aztertu ondoren, gure ustez, aurkezturiko zuzenketa hori ederki asko justifikaturik dago, ez soilik bertan egin beharreko hainbat obrengatik eta beroriek presaz egin nahi direlako, baizik eta, baita Udalaren interesentzako kaltegarria delako ere, eta 1998an bi aldeek sinaturiko lagatze-hitzarmenaren izpiritu eta idatziaren aurkakoa delako. Argi eta garbi dago balizko legezkotasunetik ezkutuan ematen zaion aldeko tratamendua.

1. A la vista de la propuesta presentada por la concejala Delegada de Educación y Cultura para la modificación del convenio en vigor entre el Ayuntamiento de -Errenteria y la Ikastola Orereta sobre el uso de parte de las instalaciones del antiguo colegio “Santo Angel de la Guarda”, y analizados los últimos informes y modificaciones realizados en el expediente, entendemos que la misma no sólo no está suficientemente justificada, ni en la asunción de las diversas obras ni en la urgencia de las mismas, si no que -además- resulta claramente lesiva para los intereses municipales, yendo en contra del espíritu y la letra de convenio de cesión firmado por ambas partes en 1998. Es un claro trato de favor encubierto por una aparente legalidad.

Bestelako beste edozein kontsiderazioetan sartu aurretik, uztearekin onuratuta suertatzen dena ikastatxe pribatu bat da, zeinaren baitan Udalak ez baitauka inolako betebeharrik. Ondorioz, ikastolaren alde egiten den guztia beti borondatearen araberakoa izan da eta izango da.

Antes de entrar en cualquier otra consideración, hay que tener en cuenta que el beneficiario de la cesión es un centro docente privado para con el que el Ayuntamiento no tiene ninguna obligación legal, por lo que toda disposición hacia esta ikastola ha sido y será siempre voluntaria.

Proposamenean tarteraturiko paragrafo berrian adierazten da obrak ez eginez gero bidegabekeria izango litzakeela beste udal lokala lagatua duten “interes publikoko elkarteekiko”, hor auzo elkarte edo kulturalak, kirol elkarteak, etab. zaku berean sartuta.

El nuevo párrafo intercalado en la propuesta se señala que la no ejecución de las obras supondría un agravio comparativo con otras “asociaciones de interés público” metiendo en este saco a las asociaciones de vecinos o culturales, deportivas,


C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

Begibistakoa da konparazio honek ez duela balio lege eta eginkizun sozial deferentea duten eragileak konparatzen direlako. Bedegaberia ematen dela konparaketa egiteko herrian dauden beste 2 ikastetxe pribatuei ematen zaienarekin egin beharko litzateke.

etc. que tienen cedido algún local municipal. Es evidente que esta comparación no resulta válida dado que compara sujetos de diferente naturaleza legal y función social. Establecer si existe o no agravio comparativo solo será posible si se compara su trato con el que reciben los otros 2 centros docentes privados radicados en la Villa.

2. Proposaturiko aldaketa udal interesentzako kaltegarria da argi eta garbi, besteak beste, 500.000 euro baino gehiagoko obrak egitea asumitzen delako, legez egiteko inongo obligaziorik ez dagoelarik eta beroriek asumitzeko nahiko arrazoirik eman ez delako. Ez egiteagatik, Ikastolak ez du egoera ekonomiko txarrean dagoela adierazten duen dokumentaziorik ekarri ere egin, alegia, egin beharreko berrikuntza horiek suposatuko lukeen kostuak asumitzea eragozten dionik. Orobat, ez da esaten obra horiek Orereta ikastolari urteko eta ikasleko 60 euro baino ez liokeela suposatuko berrikuntzen irauten duten 6 urte horietan, kooperatik aise aski bere gain har dezakeen kostua.

2.- La modificación propuesta resulta claramente lesiva para los intereses municipales, ya que se asume la ejecución de obras por un importe superior a los 500.000 euros sin que exista ninguna obligación legal de hacerlo ni se hayan expuesto causas suficientes para asumirlo. Ni tan siquiera se ha presentado por parte de la Ikastola documentación que acredite una mala situación económica que le impida asumir los costes de las reformas que le corresponde ejecutar. Tampoco se informa de que estas obras le supondrían a la Ikastola Orereta tan sólo un gasto extra de 60 euros por alumno al año, durante los 6 años que duran las reformas, un coste perfectamente asumible para la cooperativa.

Ezkuntzako zinegotziak, alderantziz jardun du, gastua justifikatzeko gezurretan ibili da –hainbat komunikabideetan– hitzez hitz zera esan baitu: “obrak nahitaez Udalari dagozkio egitea”.

Al contrario, para intentar justificar este gasto, la concejala de Educación ha tenido que mentir, afirmando literalmente -a través de diversos medios de comunicación- que “la ejecución de estas obras le corresponde, inevitablemente, al Ayuntamiento”.

Baieztapen hau goitik behera gezurra da, zeren eta, mantenimentukoak edo inbertsioko obrak diren edo ez sartu gabe, kontuan hartu behar da sinatuta dagoen hitzarmenak espresuki jasotzen duela obra mota horiek (gastuak..., bai zainketari dagozkiona, hala nola hobekuntza-posibleak, egitura-konponketa, etab.) egiteko erantzukizuna Ikastolarena dela, trukean eraikina ikasleentzat baliatu ahal izateko.

Esta afirmación es radicalmente falsa, dado que, al margen de su catalogación como obras de mantenimiento o inversión, debe tenerse en cuenta que el convenio recoge expresamente la responsabilidad que asumió la Ikastola de llevar a cabo ambos tipos de obras (los gastos...tanto para su conservación, como posibles mejoras, arreglos de estructuras, etc.) a cambio de poder utilizar en exclusiva el edificio para sus usos docentes.

Horregatik, proposamenak ez du aldaketa puntual baten izaera, oinarrizko baldintzak aldatzen dituelako, hain zuzen egun indarrean dagoen hitzarmenean jasotzen ez direnak. Orain bidezkoa berori berrikustea izango litzateke, are gehiago 2013an 15 urte betetzen direnean eraikina laga zenetik, eta ondorioz, hitzarmenaren balantzea egiteko une egokia delako.

Urratu den oinarrizko baldintza zera da: lagapen horrek ez liokeela Udalari inolako kosturik suposatu behar eraikinaren zaintza eta mantenimentuari dagokionean, hain zuzen beroriek emakidadunaren gain izatekoak zirelako. Gainera, ez da aurreikusten Udalak egin beharreko obretatik zenbait egin gabe uzteko aukerarik. Zer gertatuko litzake hori gertatuz gero? Ikastolak esijitu al dezaketa egitea?

Bestalde, kritikagarria da ustezko obra horien presa justifikatzeko arrazoirik ez dela ematen, izan ere, 2019. urte arteko aurrekonturaino luzatuko baitira. Benetan presazkoak balira, bai eraikina erortzeko arriskuan dagoelako, edo bertan ibiltzen direnei kalteak eragin diezazkielako, proposamena 2013. urtean burutzekoa izan beharko luke, ez 6 urtez gauzatzekoa.

3.- Gaiaren muinetara jota, gure aburuz hitzarmena oso-osorik berrikusi beharko litzateke, zeren eta berroren xedea aintzat hartuz gero, sinatu zenetik jada 15 urte pasa direlako. Epe honetan zehar Ikastolaren hezkuntza-eredua finkatu da eta bere heziketa-proiektua iraunarazteko instalakuntza hauen beharra ez da denboraldikoa, etengabekoa baizik.

Horregatik, kontuan izanik lagapenaren epea Udalak bere gauzetarako eraikin beharra baluke, hala nola Orereta ikastolaren heziketa-eredua finkatu ez balitz,

Por ello, la propuesta efectuada no tiene naturaleza de modificación puntual, dado que altera las condiciones esenciales y no accesorias recogidas en el convenio actualmente vigente. Lo que procede es una revisión del mismo, máxime cuando en 2013 se cumplen los 15 años de la cesión del edificio y resulta por tanto un momento óptimo para hacer balance del convenio.

La condición esencial quebrantada es que la cesión no le supusiera al Ayuntamiento ningún coste en lo que respecta a los gastos de conservación y mantenimiento del edificio ya que estos recaen en el cesionario. Asimismo, tampoco contempla la posibilidad de que el Ayuntamiento pueda desistir de ejecutar parte de las obras. ¿Qué ocurriría en tal caso? ¿Podría la Ikastola exigir su cumplimento?

Por otra parte, cabe criticar la falta de motivación de la supuesta urgencia de las obras proyectadas, dado que estas se extienden hasta el ejercicio presupuestario 2019. Si fueran realmente urgentes, bien por riesgo de derrumbe del edificio o por posibles daños a sus usuarios, la propuesta tendría que recoger su ejecución en el presente ejercicio 2013, no espaciarlo en 6 años.

3.- Yendo al fondo de la cuestión, entendemos que lo que debería plantearse es la revisión integral del convenio, atendiendo a la finalidad del mismo, dado que han transcurrido ya 15 años desde su firma. A lo largo de este tiempo, la línea educativa de la Ikastola se ha consolidado y la necesidad de estas instalaciones para poder mantener su proyecto educativo es permanente, no temporal.

Por ello, considerando el tiempo de la cesión como un periodo de prueba reversible tanto por si el Ayuntamiento tuviera necesidad de este edificio para



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

uste dugu oso une egokia dela uzte hori baloratzeko, edo jabetza hori ikastetxe pribatu bati saltzeko, besteak beste, Errenterian dauden gainontzeko ikastetxe publiko eta pribatuekin bidegabekeriazko konparazioak sahiesteko.

usos propios como por si la línea educativa de la Ikastola Orereta no se hubiera consolidado, entendemos que es el momento adecuado para valorar su donación o la venta de esta propiedad a este centro educativo privado, entre otras razones, para evitar agravios comparativos con los otros centros educativos públicos y privados de Errenteria.

ADIERAZITAKO GUZTIAGATIK, UDALBATZARI PROPOSATZEN DIOGU:

POR TODO LO EXPUESTO, SE PROPONE AL PLENO DE LA CORPORACION:

1. Osotasuneko zuzenketa Ezkuntza eta Kulturako zinegotzi-ordezkariak Errenteriako udala eta Orereta ikastolaren artean lehengo “Ainguru Guardako ikastetxea”-ren zati bat erabiltzeko indarrean dagoen hitzarmena aldatzeko aurkezturiko proposamen-aldaketari.

1. La enmienda a la totalidad de la modificación propuesta por la concejala Delegada de Educación y Cultura sobre el convenio en vigor entre el Ayuntamiento de Errenteria y la Ikastola Orereta sobre el uso de parte de las instalaciones del antiguo colegio “Santo Angel de la Guarda”.

2. Espediente berri bati hasiera ematea oso-osorik berrikusteko egun indarrean dagoen hitzarmenaren baldintzak, hain zuen instalakuntza hauen jabetza Orereta ikastolari –murriztutako prezio edo sinboliko baten bidez edo doan emanez– esku-aldatzeko xedearekin. Negoziazio-batzordea alderdi politiko guztietako ordezkariek osatuko dute.

2. La apertura de un nuevo expediente para revisar integralmente las condiciones del convenio actualmente vigente, con el objeto de negociar la transmisión de la propiedad de estas instalaciones a la Ikastola Orereta, bien sea mediante venta por precio reducido o simbólico o a través de una donación. La comisión negociadora estará participada por representantes de todos los grupos políticos.

Alkate jaunak (E.O. BILDU) hitza Begoña Bueno Barranco idazkari nagusiari eman dio.

El Sr. Alcalde (E.O. BILDU) da paso a la Secretaria General Begoña Bueno Barranco.

* Idazkari nagusiak esan du txosten hau aurkeztu dutela bereziki alderdi Sozialistak osotasuneko zuzenketa egin zuelako eta erregelamendu organikoak horrela adierazten duelako. Gaineratu du uztailaren 15ean aurkeztu zutela zuzenketa bat, beste bat uztailaren 17an eta, azken honek aurrekoa ezabatzen duela, nahiz eta bi paragraforen aldea baino ez izan. Berak azken honi buruz informatu du.

* Interviene en euskera La Secretaria General manifiesta que ha presentado este informe precisamente porque el grupo Socialista presentó una enmienda a la totalidad y porque el Reglamento Orgánico así lo determina. Añade que el día 15 de julio presentaron una enmienda y otra el día 17 de julio, anulando ésta última la anterior, aunque entre las mismas no haya más diferencias que la de dos



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

Izan ere, zuzenketa ikusi ondoren, berak txostena eskatu zien Ondare Saileko teknikariari eta Lege-ahokulariari. Hauek, atzo, egin zuten eta bera horri atxikitzen zaio. Bertan zera adierazten da: txosten juridikoan azaltzen da, lege aldetik, ondorengo puntuak planteatu direla emendakinan: batetik, proposamenaren justifikazio eza, bestetik, proposamena Udalaren interesentzako kaltegarria dela. Eta hirugarren, proposamenak ez duela aldaketa puntual izaera, kontratuaren oinarrizko izaera aldatzen dituelako eta bertan jasotzen diren baldintzak. Horien inguruan zera esatean da: lehenengo puntuari dagokionez, txostena eman zela uztailaren 3an, non espresuki esplikazioari buruz hitz egiten baitzen, eta beraz, gai hori informatutzat eman zen eta ez da gehiago sakontzeko beharrik ikusten. Bigarrenari dagokionez, berriz, esaten da 2013ko ekainaren 14ko txostenean, toki-erakundeen ondasunen araudian oinarrituz, tokiko erakundeen ondasunak doan laga daitezkeela dirua irabaztea xede ez duten interes publiko erakunde batzuei, eta ondasun horiek denbora baterako lagatzeko aukera ere egon daiteke. Legeak espresuki jasotzen ez badu ere, jakintzat eman daiteke ondasun horiek erabiltzeko moduan egon behar dutela. Horrenbestez, tokiko erakundeen ondasunen araudiaren arabera, badirudi, dirua irabaztea xede ez duten interes publikoko erakunde pribatuei dagokionean, badagoela babestu beharreko interes publikoa, eta horregatik dago erakunde horiei ondasunak doanik lagatzeko aukera. Horrela, Interes publiko horren babespean egingo litzateke kontratuaren aldaketa, nahiz eta kasu honetan udal eraikin batean inbertsio-obrak egin dituen, eraikina denbora baterako lagatzen du eta eraikinaren jabetza mantentzen da. Azken finean aurkezturiko osoko zuzenketak ondasunak izan behar duen destinoaren inguruan, hau da, Aingeru Guardako eraikinak proposamen berri bat jasotzen du, hain zuzen

párrafos. Ella ha informado sobre ésta última, puesto que, una vez visto de qué trataba la enmienda, solicitó informes a la técnico del Departamento de Patrimonio y a la Asesora Jurídica. Estas lo emitieron ayer y ella se adhiere a lo que allí se expresa. En el informe jurídico se señala que en la enmienda desde el punto de vista legal se plantean los siguientes puntos: por una parte, la no justificación de la propuesta, y por otra, que la misma es gravosa para los intereses municipales. En tercer lugar, que la propuesta no tiene un caracter puntual, debido a que modifica el carácter basico del contrato y las condiciones del mismo. En el informe, en relación al primer punto se señala que ya se emitió informe el día 3 de julio, donde expresamente se hablaba en relación a las explicaciones, y por tanto, se consideraba informado dicho tema, porque no se veía la necesidad de profundizar más. En cuanto al segungo punto se dice que en el informe del día 14 de junio de 2013, basándose en la normativa de bienes de las corporaciones locales, donde se señala que dichos bienes pueden ser cedidos gratuitamente a algunas instituciones públicas que no tienen por objeto ganar dinero, existe la posibilidad también de que se cedan dichos bienes a título gratuito para una temporada. Aún cuando la ley no recoge expresamente dicha posibilidad, se puede dar por sabido que dichos bienes tienen que estar en condiciones de usarlos. Por ello, según la normativa de bienes de las instituciones locales, parece ser que, en cuanto a las instituciones privadas de interés público que no tienen por objeto ganar dinero, existe un interés público que se debería proteger. Es por ello que existe la posibilidad de ceder gratis bienes a dichas instituciones. La modificación del contrato se realizaría en base a ese interés público, y aunque en este caso se realizarían inversiones en un edificio municipal, el edificio en



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

Orereta Ikastolari eman edo prezio onean edo sinbolikoan saltzea. Proposamen hori ere sar liteke ondasunen araudian, Udalarentzako izango lituzkeen ondorio ekonomikoekin, jakina. Gisa horretan proposamen baten edo bestearen aukera egiteak, erabat izaera politikoa du. Lege ikuspuntutik, berriz, proposamenak onartzeko modukoak dira. Eta hirugarrenean, proposamenak aldaketa puntualaren izaera edo kontratuaren oinarrizko baldintzak aldatzen dituela esaten da. Horri buruz esaten da kontratua aldatzeko proposamenak oinarrizko izaera izan dezakeela onartuta ere, adierazi, proposamenak onartzeko prozedurak zein akordioak eskumendun organo berak izango liratekeela, hau da, aldaketa modu batekoa edo bestekoa izan, akordioa Udalbatzaren gehiengo soilak onartu beharko lukeela. Eta bukatzen da esanez gainontzeko kontuei dagokionez, 2013ko uztailaren 14an izenpeturiko txostenari lotzen zatzaizkiela, eta osoko zuzenketako dagokionez, ostera, Udal Idazkariak 2013ko ekainaren 25ean eginiko txostenari. Prozedurari buruz, ekainaren 25eko txostenean jasotzen den modura, honetan ere adierazten da zein den berori, eta azkenik ondorioak: lehenengo, Socialistas Vascos-Euskal Socialistak aurkezturiko zuzenketa eztabaidatu eta bozkatu egin behar da. Bigarren, osotasuneko zuzenketa onartuko balitz, gaia mahai gainean geratuko litzateke. Eta ez balitz onartuko, berriz, diktaminatutako proposamena eztabaidatu eta bozkatuko litzateke.

cuestion se cede temporalmente y se mantiene la propiedad del mismo. En definitiva, la enmienda a la totalidad presentada en relación al destino que se le vaya a dar al bien, se efectúa una nueva propuesta en relación al edificio San Angel de la Guarda: donar a la Ikastola Orereta o enajerar a un precio simbólico. Dicha propuesta también podría entrar en la normativa de bienes, con sus consecuencias económicas, claro está. En ese sentido la opción de una propuesta u otra tiene un carácter meramente político, porque desde el punto de vista legal ambas propuestas son aceptables. En el tercer punto se dice que la propuesta tiene un carácter puntual o que se modifican los requisitos básicos del contrato. En relación a eso se señala que aun admitiendo que la propuesta de modificación del contrato tenga un carácter básico, tiene que decir que el procedimiento de aprobación de la propuesta así como la de los acuerdos los adoptaria el mismo órgano, esto es, que aún siendo las modificaciones de uno u otro tipo, es la mayoría simple de la Corporación quien decide. Y termina diciendo, en cuanto al resto de los temas, que se adhieren al informe suscrito el 14 de julio de 2013, y que en cuanto a la enmienda a la totalidad al informe realizado por la Secretaria municipal el día 25 de junio de 2013. En cuanto al procedimiento, tal y como se recoge en el informe de 25 de junio, también en este se señala cuál es el procedimiento. Así, primero se tiene que debatir y votar la enmienda presentada por los Socialistas Vascos-Euskal Socialistak. En segundo lugar, si se aprobara la enmienda a la totalidad, el tema quedaría encima de la mesa. Y si no se aprobara, se debatiría y se votaría la propuesta dictaminada.

Ondoren mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Socialistak) esan du aurreko osoko bilkuran

* Interviene el Sr. Rodriguez (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que en el Pleno



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

gehiengoak puntu hori mahai gainean uztea erabaki zuela. Bere Taldeak eskertzen du inolako logikarik gabe, errespetu osoz dio, inposatu nahi zen irizpide baten aurrean Talde ezberdinek agertu zuten jarrera. Izan ere, hari esker bere Taldeak gaia aztertu ahal izan du teknikariei eskatu zizkien txosten ezberdinak aztertuz eta, gainera, hitzarmena duten ikastetxe ezberdinetako arduradunekin harremanak izatea ahalbidetu dielako. Denbora tarte horretan ere, gainontzeko alderdi politikoekin lasai ederrean hitz egin ahal izan dute. Bere taldeak adostasunak lortzearren egin du lana, ez da gelderik egon eta ez du ezer inposatu nahi izan ere. Aitzitik, hainbat alternatiba proposatu ditu, euren aburuz, udal interesak Bilduk eginiko proposamena baino gutxiago kaltetzen dituenak. Lehenago aitaturiko elkarrizketa horien bidez jakin ahal izan dute Orereta Ikastolaren proposamena, Bilduk mahai gainean jarritakoarekin zerikusi gutxi duena. Ezin izan dute eztabaidatu eta adostu hainbeste kaltetu ez lukeen proposamenik. Eta emakidadunak betebehar batzuk jasotzen zituen hitzarmen bat bazegoela aintzat hartuta, esan behar dute ez dituela bete, eta horrelaxe adierazten dute txosten juridiko eta tekniko ezberdinek. Eurei hori ez zaie bidezkoa iruditzen, gainera, haiek onuratzea hitzarmena bidez bete behar zutena estaliz eta hitzarmen hura gehiago zabalduz saritzea. Gauzak horrela, uste du ez badira mugitzen urte batzuen buruan egoera berdinean egongo direla, eta gaur han duten egoera berdinarekin aurkituko direla. Eurek konparaziazko kalteaz hitz egiten dutenean, gaiaren berri dutelako egiten dute. Orereta Ikastola hitzarmena duen ikastetxea da, Errenterian beste bik –Telleri-Alde eta Hijas de la Cruz– duten moduan, eta nolabait aldeko tratua, Ikastolak baino ez du hartzen, hiru ikastetxeek Errenteriako herriari hezkuntza-kultur zerbitzu bera ematen badiete ere. Hiruak interes publikoko ikastetxe pribatuak dira, ez dute dirua irabaztea xede, baina hiruek ez dute tratu berdina

anterior se decidió por mayoría dejar este punto que tratamos hoy sobre la mesa. Su Grupo agradece el apoyo realizado por los diferentes Grupos que se posicionaron en este sentido ante las formas y maneras con las que se pretendía imponer un criterio fuera de toda lógica y de enorme respeto. Gracias a ello su Grupo ha podido trabajar el tema estudiando los diferentes informes que solicitaron a los Técnicos y han podido contactar con los responsables educativos de los diferentes colegios concertados. Este tiempo transcurrido les ha permitido hablar sosegadamente con el resto de los Grupos Políticos, su Grupo ha trabajado en conseguir consensos y no ha sido inmovilista ni impositivo ya que ha propuesto varias alternativas, todas ellas menos lesivas que la que propone Bildu para los intereses municipales. De dichas conversaciones han conocido de primera mano la propuesta de la Ikastola Orereta que no se parece en nada a la que pone encima de la mesa Bildu. No han podido debatir ni consensuar una propuesta que no dañe o que dañe lo menos posible las Arcas Municipales. Partiendo de la base de la existencia de un convenio donde el cesionario tenía que cumplir sus obligaciones, que no ha hecho, y así lo manifiestan los diferentes informes técnicos y jurídicos. Les parece injusto que encima se vuelva a beneficiarles cubriéndoles lo que se han negado por convenio a realizar y premiándoles con una ampliación de ese convenio. Si no se mueven estarán dentro de unos años en la misma situación y se volverá a padecer lo mismo que se trae hoy aquí. Cuando hablan de agravios comparativos lo hacen como conocedores del caso. Ikastola Orereta es un colegio concertado al igual que otros dos colegios existentes en Errenteria. Telleri-Alde e Hijas de la Cruz y quien recibe de alguna forma trato de favor, solo es la Ikastola. Los tres colegios dan el mismo servicio educativo, social y cultural al pueblo de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

jasotzen, nabarmendu du. Eurek ez dute ulertzen nola egin litekeen bidegabekeria hori. Bilduk proposamenean justifikatzen du egun Ikastolak 1.600 pertsona hurbileko heziketa-elkartea duela, hots, 1.500 bat ikasle eta 140 bat langile. Horrekin, nolabait, erakutsi nahi du beste bi ikastetxeek –1.200 ikasle eta 100 langile– elkarrekin baino gehiago dituela, nahiz eta, jakin badakiten, azken hauek ez dutela udal diru-laguntzarik jasotzen euren hezkuntza-kultura proiektua hobetzeko. Era berean, Bilduk proposamena justifikatu du, esanez, ez dagoela interes publikoko elkarte batekin – inbertsio-obra guztiak emailearen gain izango liratekeenak– eginiko uzte-kontratuarik. Kontu honen inguruan esan behar dute ez dagoela zentzu horretako uzte-kontraturik, errealitatean inbertsio-obrak oso modu ezberdinetan egiten direlako bai zenbait elkarte gastronomikoetan, kulturakoetan, auzo elkarteetan, hala nola Oiarso eraikinean dagoen Orereta Txiki haurtzaindegian. Osotara, kasuaren larritasuna da Bilduk nora eraman nahi dituen proposamenarekin, hau da, Ikastola, kultura, kirol, auzo elkarte, etab.ekin konparatuz, izan ere, azken finean, horiek ikusteko ezer gutxi baitute Orereta ikastolak duen entitatearekin, garrantziarekin, tamainarekin, baliabideekin, bazkideekin, diru-laguntzekin eta beste gauza askorekin. Logikoena eta normalena herriko beste ikastetxe pribatu eta hitzarmena dutenekin konparatzea izango litzakeelako, argi dagoen moduan, konparazio hori ez delako bidezkoa, lege-izaera eta eginkizun sozial diferentea duten sujetoak konparatzen direlako. Bilduk bere proposamenean ezin du interes publikoko beste elkarteekin konparaziazko bidegabekeriarik egin, izan ere, konparaketa bat egin ahal izateko, ikastolari ematen zaion tratua herriko beste bi ikastetxeek jasotzen dutenarekin konparatuz egin beharko litzatekeelako. Orobat, Ikastolak eginiko eskaeran ez du, ez idatziz ez ahoz, adierazten lehen bi aldeek sinaturiko

Errenteria. Los tres son privados de interés público, sin ánimo de lucro pero los tres no reciben el mismo trato, entienden que esto es un agravio. Bildu en su propuesta justifica que la Ikastola tiene actualmente un tejido asociativo de cerca de 1.600 personas contando con unos 1.500 alumnos y 140 trabajadores, con ello saben que pretende motivar ya que entre los otros dos colegios se superan los 1.200 alumnos y los 100 trabajadores y todo ello sin ayudas municipales de cesiones ni subvenciones para mejorar su proyecto educativo y socio-cultural. Igualmente Bildu justifica su propuesta diciendo que no existen contratos de cesión con asociaciones de interés público en que las obras de inversión sean asumidas en su totalidad por el cesionario. Aquí hay que decir que aunque no exista un convenio, o contrato de cesión en este sentido, en realidad se realizan obras de inversión y de formas muy variadas, en algunas sociedades gastronómicas, culturales, asociaciones de vecinos e incluso en la guardería Orereta Txiki en el edificio de Oiarso. Lo grave del caso es dónde les quiere llevar Bildu con su propuesta comparando la Ikastola con entidades culturales, deportivas, vecinales... que no tienen nada que ver ni en la entidad, ni en la importancia, ni en el tamaño, ni en los recursos, ni en socios, ni en subvenciones, ni en ayudas y en muchas cosas más con las que es y tiene la Ikastola Orereta. Lo lógico y normal es realizar la comparación con otros colegios concertados y privados de la Villa porque evidentemente dicha comparación, no resulta válida al comparar sujetos de diferente naturaleza legal y función social. Bildu en su propuesta no puede establecer que exista agravio comparativo con otras asociaciones de interés público, ya que si existe o no dicho agravio comparativo sólo será posible si se compara el trato dado a la Ikastola con el que reciben los otros dos centros docentes privados de la Villa. Igualmente la Ikastola en su petición no hace

hitzarmena bete ezin duela adierazten duten egoerako ekonomikoaren berririk, hau da, hitzarmena betez egin beharko lituzkeen berrikuntzen kostuak. Bilduk aurkezturiko proposamenarekin Ikastolak diru publikoaz onuratzen jarraituko du, nahiz eta hori bere garaian adostutakoa bete gabe utzi, edo sare pribatuan jarraitzea erabaki zuelako izan. Ziurrenik ere beste aukera bat egin izan bazuen, gaur ez ginateke egun gauden egoeran egongo, gaineratu du. Orereta ikastolari eman nahi zaion dirutza, ia-ia 600.000 euro, begibistakoa da ez dela zuzena herriko herritarrek dituzten beharren aurrean, adibidez, anpleguan, gizarte-zerbitzuetan, mantentze edo garbitasunean edo zerbitzuetan, etab. Orobat, badaude berehala hobetu beharreko instalazio publikoak, esaterako, Lanerako prestatzeko zentroa, Galtzarabordako kiroldegia, Uztargi Haurtzaindegia, Fanderiako kirol instalakuntzak, Beraungo igerilekuak, etab.ek egokitu, zaindu eta mantentze-lanak dituzte egiteke. Eskola publiko ezberdinetan ere inbertitu zitekeen, izan ere, obra horien kostuaren % 60 berreskuratu baitaiteke Eusko Jaurlaritzan dauden programen bidez, jada eginda dauden jarduketak gutxietsi gabe. Adierazitako horrek guztiak Bildu eginiko proposamenak baino gutxiago kaltetuko lituzke udal interesak, eta jakina, begibistakoa da obrak egiteko balizko larrialdi hori ez dela existitzen, besteak beste, egin asmo diren obrak 2019ko aurrekontuan ere sartzeko moduan egin asmo direlako, eta presazkoak izan balira, berehala egin beharko liratekeelako. Ondorioz, Bilduri galdetuko lioteke ea non amaitzen den eurentzat publikotasunaren defentsa. Interes jakin batzuek bakarrik dituzuenean? Talde Sozialista urte hauetan denetan zehar sostengatu izan du Orereta ikastolaren heziketa-proiektua, eta halaxe jarraitzeko desioa du. Baina horretarako uste du, ahalik eta adostasun handiena lortzearren, hau bezalako kontu batean elkarrekin lana egin beharko zuketela, hain zuzen

ninguna referencia escrita ni verbal a que acredite una mala situación económica que le impida cumplir el convenio pactado entre las partes, es decir, los costes de las reformas que le corresponden ejecutar por convenio. Con la propuesta presentada por Bildu la Ikastola va a seguir beneficiándose de dinero público a pesar de incumplir lo acordado o de haber elegido en su momento estar en la red privada y no en la pública. Posiblemente si su elección hubiese sido otra hoy no estaríamos en esta situación. La cantidad económica pública y que pretenden dirigir a hacia la Ikastola Orereta, casi 600.000 euros, es a todas luces injusta ante las diferentes necesidades que tienen los ciudadanos de la Villa tanto en empleo como en servicios sociales, como en mantenimiento, o en limpieza, o en servicios etc. Igualmente hay necesidades inmediatas para mejorar instalaciones públicas que necesitan la adaptación, conservación y mantenimiento como puede ser el Centro de Iniciación Profesional, el Polideportivo de Galtzaraborda, la Guardería Uztargi, las instalaciones deportivas de Fandería, Piscinas de Beraun etc. Incluso se podría invertir en los diferentes centros educativos públicos recuperando el 60% de los costes de dichas obras a través de los programas existentes en el Gobierno Vasco, sin menoscabo de las actuaciones que ya se hayan realizado. Todo lo expuesto resulta menos gravoso para los intereses municipales que la propuesta de Bildu y desde luego, vista la propuesta que realizan, está claramente demostrado que la supuesta urgencia de las obras no existe ya que las obras a realizar se extienden hasta el ejercicio presupuestario 2019 cuando de ser urgentes y necesarias deberían de realizarse de inmediato. Preguntarían a Bildu donde acaba para ellos la defensa de lo público, ¿será sólo cuando existen intereses determinados?. El Grupo Socialista ha venido apoyando a lo largo de los años el proyecto

1997an lehenengo hitzarmena sinatzeko orduan, aurkako boto bakar batik gabe, egin zuten moduan. Orain gehiengo justu-justuarekin egingo da, eta Bilduri gogorazten die 1997an, orduan euren lagunak ziren Herri Batasunakoek alde bozkatu zutela jakininaren gainean egonik itun hark zeuzkan klausulak, beroriek onartuz Ikastolak egin zuen moduan. Proposamena sei informazio-batzordeetatik pasa da hil batean, eta horietan guztietan Bilduk eginiko proposamena ez da aurrera atera, eta hala eta guztiz ere, Bilduk ez du adierazi mugitzeko inolako interesik, edo adostasuna lortzearren konponbide posibleak bilatzeko. Are gehiago, gai hau edozein modutan aurrera ateratzeko tematua dago. Alkate jaunak aurreko osoko bilkuran adierazi zuen Talde Sozialistak gaia mahai gainean uztearekin prozesua luzatu nahi zuela. Haatik, berak esan behar du une hartan eurek, erantzukizunez jardunez, konponbide eta adostasunak bilatu nahi zituztela. Gainera, errealitateak erakutsi du, tarte horretan mugitu direla, zuzenean edo zeharka zerikusia duten guztiekin hitz egin dutelako. Euren lehenengo proposamena aldatzeko ere gauza izan dira, eta aukera zabalak izango lituzkeen ateak ireki dituzte Ikastola eta interes publikoak ez kaltetzeko asmoarekin, eta bide horretan aurkezturiko proposamen guztiek Bilduk eginikoak baino gutxiago kaltetzen dute. Aukera horiek, esaterako, uzte posible batetik etorkizunean itzultzeko lagatze bateraino izan daitezke, baita hitzarmen berri bat egitekoa ere, edo alokatzea, edo diru-laguntzak ematea, hain zuzen obren kostua Udalarentzat ez dadin izan hain kaltegarria. Alabaina, haren aburuz, zerbait akordatzeko edo adosteko borondate politikoa eta parte-hartzea eman behar da. Eurek eginiko proposamen guztiek bermatzen dute Orereta ikastolak etorkizunean jarrai dezan bere hezkuntza-proiektua garatzen, oraintxe arte egin duen moduan, gainera hori baldintza guztiak betetzen dituen eraikin

educativo de la Ikastola Orereta y desea seguir haciéndolo pero para ello creen que en un asunto como éste deberían de poder trabajar conjuntamente en conseguir el máximo consenso como se consiguió en la firma del primer convenio en el año 1997 sin ningún voto en contra. Ahora se va a hacer con mayoría justita y con votos en contra. Recuerda a Bildu que en 1997 sus compañeros entonces Herri Batasuna votaron a favor sabiendo las claúsulas de dicho convenio y aceptándolas como también hizo la propia Ikastola. La propuesta ha pasado por seis comisiones en menos de un mes y en todas ellas la propuesta realizada por Bildu ha decaído pero a pesar de ello, Bildu no ha mostrado ningún interés o movimiento en la búsqueda de posibles soluciones para sumar adhesiones, es más, está empeñado en sacar este tema adelante de cualquier manera. El Sr. Alcalde en el Pleno anterior manifestaba que lo que el Grupo Socialista pretendía solicitando dejar encima de la mesa esta propuesta, era alargar el proceso en el tiempo. En aquel momento se contestó que lo que hicieran por responsabilidad sería buscar soluciones y consenso. La realidad ha demostrado que ellos se han movido, han hablado con todos aquellos que de alguna manera están directa o indirectamente involucrados. Han sido capaces de modificar su primera propuesta, abriendo un amplio abanico de posibilidades con el objetivo de no perjudicar a la Ikastola ni a los intereses públicos siendo todas las propuestas presentadas menos gravosas que las presentadas por Bildu y van desde la posible cesión a al donación con futura regresión, a la realización de un nuevo convenio, a un posible alquiler, a unas subvenciones para que el coste de las obras resultasen menos gravosas al Ayuntamiento, etc. Para poder acordar o consensuar algo debe de haber participación y voluntad política para querer hacerlo. Todas las propuestas realizadas garantizan



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.eus

